

Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

8b6385ab9cd049692a05612ebb53c65e68dfa08b2d8c714a5da36f0065aa9929

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

TOLOSAKO UDALBATZAK 2025EKO MARTXOAREN 27AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

2025.03.27

Tolosako Udaletxean, 2025eko martxoaren hogeita zazpian, 18:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Angel Martinez de Rituerto Arregui izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Angel Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)

Bertaratutako zinegotziak:

Estitxu Kortejarena Ugarte(EH BILDU)
Goiuri Ezeiza Arandia(EH BILDU)
Ander Figuerido Zubiria(EH BILDU)
Josune Sanz Vidal(EH BILDU)
Aitor Agirresarobe Murgi(EH BILDU)
Kristina Pelaez Errazkin(EH BILDU)
Aitzol Garcia Azurmendi (EH BILDU)
Garbiñe Marzol Ormazabal(EH BILDU)

Xarles Iturbe Pasaban(EAJ-PNV)
Biotza Agirre Ugalde(EAJ-PNV)
Leire Zubeldia Rezola(EAJ-PNV)
Javier Zabala Sastre(EAJ-PNV)
Ainhoa Dominguez Landa(EAJ-PNV)
Patxi Amantegi Zubiria(EAJ-PNV)
Iker Uson Gonzalez(EAJ-PNV)

Ez bertaratutako zinegotzia:

Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE-PSOE)

Idazkari akzidentala:

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Kontuhartzaile akzidentala:

Paulino Alonso Eraso

Eguneko gai-zerrenda

1. Akta hau onartzea:
2025eko otsailaren 26ko ohiko osoko bilkurakoa.
2. Onartzea Uzturre Asistentzia Guneak eskaintzen dituen zerbitzuen prezioak eguneratzeko proposamena.
3. Hasierako onarpena ematea 2025eko dirulaguntzen eranskina aldatzeko proposamenari.
4. Onartzea Tolosako Udaleko 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa.
5. Onartzea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren ordenantza fiskalaren aldaketa.
6. Berri ematea: Tolosako «20.1 Amartz Paper-Fabrika» azpiesparruko urbanizatzeko jarduketa-programa egikaritzeko hirigintza-hitzarmena.
7. Gai-zerrendatik kanpo, eta premiatasuna aldeztu aurretik aitortu eta gero: EH Bildu eta EAJ-PNV Udal taldeek aurkeztutako Autocares Cuadra enpresako langile ohi eta egungo hainbat langileei babesa adierazi eta Hiribusaren zerbitzua hobetzeko eskaera egiteko mozio proposamena.
8. Galderak eta eskaerak.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

1. AKTA HAU ONARTZEA:

2025EKO OTSAILAREN 26KO OHIKO OSOKO BILKURAKOA.

Izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA UZTURRE ASISTENTZIA GUNEAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUEN PREZIOAK EGUNERATZEKO PROPOSAMENA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2025eko martxoaren 19ko irizpena.

IKUSIRIK

Lehen: 2025ko martxoaren 11an Gizarte Zerbitzuak Uzturre asistentzia guneak eskaintzen dituen zerbitzuen prezioak eguneratzeko txostena egiten du, ondoren hau esaten du hitzez hitz:

" IKUSIRIK

Lehen.- Tolosako Udaleko erregistroan, 2025eko otsailaren 7an, 2025/1924 sarrera-erregistro zenbakiarekin, Uzturre Asistentzia Guneak, aurkeztu duela bere proposamena eskaintzen dituen prezioa eguneratzeko.

Bigarrena.- Proposatzen duena da 2024ean onartutako prezioei urteko IPC akumulatuaren portzentaia gehitzea da, hau da, %3,6.

KONTUAN HARTURIK

Lehen.- Tolosako Udalbatzak, bi mila eta hogeita hiruko martxoaren bian, Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, erabaki zuela Tolosako Alondegi plazan zentro gerontologikoa eta aparkalekua, eguneko zentroa eta adinekoentzako tutoretzapeko apartamentuak egiteko eta ustiatzeko emakidaren kontratuan, Uzturre Asistentzia Gunean eskaintzen diren zerbitzuen prezioen onarpena eguneratzeko erabiliko den irizpidea finkatzea (2021COBR0001). Hain zuzen ere, honela zehaztu zen irizpide hori:

<<Bigarrena.- Onartzea Uzturre Asistentzia Gunean eskaintzen diren zerbitzuen prezioen onarpena eguneratzeko erabiliko den adierazlea honakoa izatea: Euskadiko KPlaren urteko akumulatua, urtarrilean argitaratzen dena. Ondorioz, hurrengo urteetan prezioen eguneratzea urtero egingo da, lehen hiruhilekoan, eta erabakia Ohiko Osoko Bilkuran onartu ondorengo hilabetearen lehen egunetik aplikatuko du Uzturre Asistentzia Guneak. Alegia, ondorengo urteetan, apirilaren 1ean hasiko dira aplikatzen prezio berriak.>>

Bigarrena.- Aztertu da Uzturre Asistentzia Guneak egindako proposamena eta egiaztatu da prezioak eguneratzeko erabilitako adierazlea Euskadiko KPlaren urteko akumulatua dela (%3,6).

Hirugarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoak diren zerbitzuen prezioak, hain zuzen ere, egoitza zerbitzuarenak, eguneko zerbitzuarenak, eta nahasmendu mentalaren unitateko zerbitzuarenak ere proposatzen dira. Horietan erakundeak proposatzen duen irizpidea bera da, baina kontuan hartu behar da emakidaren kontratuaren oinarrietan bete beharreko beste irizpide bat dagoela:

<<plaza pribatuen prezioa izango da Aldundiak itundutako prezioari %10a erantsita>>.

Gaur egun, oraindik ez da jaso 2025erako Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako agindurik, zeinaren bidez argitu beharko litzatekeen 2025 urtean aplikatu beharreko plaza kontzertatuaren prezioen zenbatekoa. Egiaztapena egiteko erabili den oinarria da 2024 urterako erakunde horrek erabakitako Erregimen ekonomikoaren agiria (2024ko azaroaren 05ean sinatua izan zena, eta egiaztatu da 2025erako proposatutako prezio pribatuek ez dutela gainditzen 2024rako ezarritako itundutako zerbitzuen prezioari %10eko erantsiarekin osatzen duen muga.”

*Hori guztia kontuan izanda, txosten honen bidez **proposatzen da:***

LEHENA: Onartzea Uzturre Asistentzia Guneak aurkeztutako prezioak eguneratzeko proposamena, zeinaren bidez 2025eko apirilaren 1etik aurrera aplikatu beharreko prezioak zehazten dituen.

BIGARRENA: Ohartaraztea eskatzaileari Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoak diren zerbitzuen prezioak eguneratzerakoan, hau da, adinekoen egoitza zerbitzuarenak, eguneko zerbitzuarenak, eta nahasmendu mentalaren unitateko zerbitzuaren prezioak eguneratzerakoan, ezinbestean errespetatu behar duten irizpidea ondokoa dela: <<plaza pribatuen prezioa izango da Aldundiak itundutako prezioari %10a erantsita>>.

Ondorioz, erabaki honekin zerbitzu horien prezioak eguneratzeko proposamena onartzen bada ere, Aldundiak zerbitzu horiek ituntzeko ezartzen duen prezioa argitaratzearekin batera, berrikusi beharko du Uzturre Asistentzia Guneak atal honetan onartutakoa, goian aipatzen den irizpidea betetzen dela bermatzeko.”

Bigarrena: Diruzaintza sailean Euskadiko KPlaren urteko metatua egiaztatu da: 2024ko abenduaren 31n % 3,60

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2025eko martxoaren 19an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen.

Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko bozkak: Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Josune Sanz Vidal, Kristina Pelaez Errazkin, Biotxa Agirre Ugalde eta Ainhoa Dominguez Landa.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

Lehenengoa.- Onartzea Uzturre Asistentzia Guneak aurkeztutako prezioak eguneratzeko proposamena, zeinaren bidez 2025ko apirilaren 1etik aurrerako prezioak zehazten diren.

UZTURRE ASISTENTZIA GUNEA. ZERBITZU OSAGARRIEN TARIFAK EGUNERATZEA.

COMPLEJO ASISTENCIAL UZTURRE. ACTUALIZACION TARIFAS SERVICIOS COMPLEMENTARIOS

TOLOSAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

01/04/2025

B. Udaleko Tarifak / Tarifa Ayuntamiento			IPC PAIS VASCO 3,10%	IPC PAIS VASCO 3,60%
<u>TARIFAS AYUNTAMIENTO DE TOLOSA</u>	<u>CON IVA INCLUIDO</u>		<u>AÑO 2024</u>	<u>AÑO 2025</u>
1. Tarifas Diputacion Foral Gipuzkoa				
Autónomo concertada	4%	€/día	75,99	-
Dependiente concertada	4%	€/día	92,18	-
Gran Dependiente concertada	4%	€/día	115,62	-
Psicogeriatrico concertada	4%	€/día	123,57	-
Autónomo privada	4%	€/día	79,87	82,74
Dependiente privada	4%	€/día	96,84	100,32
Gran Dependiente privada	4%	€/día	116,00	120,18
2.- (UNIDAD TRASTORNO MENTAL) (diputación)				
Residente unidad residencial transtorno mental	4%	€/día	141,40	-
3.- CENTRO DE DÍA (Diputación)				
Asistencia día laborable concertada	4%	€/día	59,76	-
Asistencia festivo y f/s concertada	4%	€/día	67,63	-
Asistencia día laborable privada	4%	€/día	50,00	50,00
Asistencia festivo y f/s privada	4%	€/día	50,00	50,00
Transporte día laborable concertado	4%	€/día	19,83	-
Transporte día festivo o f/s concertado	4%	€/día	22,65	-
Transporte día laborable privado	4%		0	0
Transporte día festivo o f/s privado	4%		0	0

ESKU3dccc644d-1370-4782-b994-20bc44bfeaa1

4.- ETXEBIZITZAK /APARTAMENTOS				
Norberaren arropa garbitzeko zerbitzua / Servicio de limpieza de ropa personal	%10	€/mes	<u>103,02</u>	<u>106,73</u>
Apartamentua garbitzeko zerbitzua [1] / Servicio de limpieza de apartamento[1]	%10	€/mes	<u>206,03</u>	<u>213,45</u>
Zainketa pertsonalen zerbitzua lanegunetan/ Servicio cuidados personales laborables	%10	€/hora	<u>25,98</u>	<u>26,92</u>
Zainketa pertsonales zerbitzua jaiegunetan / Servicio cuidados personales festivo-f/s	%10	€/hora	<u>31,30</u>	<u>32,43</u>
Etxebizitzaren alokairua/ Alquiler apartamento	%10	€/mes	<u>648,20</u>	<u>671,54</u>
5.- ETXEBIZITZA KOMUNITARIOA / VIVIENDA COMUNITARIA				
Alojamentu plaza okupatuan- eguna [4]/ Alojamiento plaza ocupada-día[4]	%10	€/día	<u>23,74</u>	<u>24,60</u>
Alojamentu plaza okupatuan- hilabetea/ Alojamiento plaza ocupada-mes	%10	€/mes	<u>722,16</u>	<u>748,15</u>
Alojamentu plaza hutsean- eguna /Alojamiento plaza vacía-día	%10	€/día	<u>11,87</u>	<u>12,30</u>
Alojamentu plaza hutsean- hilabetea/ Alojamiento plaza vacía-mes	%10	€/mes	<u>361,08</u>	<u>374,08</u>
Manutentzioa-eguna / Manutención-día	%10	€/día	<u>13,02</u>	<u>13,48</u>
Manutentzioa-hilabetea / Manutención-mes	%10	€/mes	<u>396,62</u>	<u>410,90</u>
6.- ERABILERA ANITZEKO LOKALAK / LOCALES POLIVALENTES				
Hileko alokairua/ Alquiler mensual	%10	€/mes	<u>250,67</u>	<u>259,69</u>
7.- 60 URTETIK GORAKOENTZAKO JANTOKI SOZIALA [5]/ COMEDOR SOCIAL MAYORES DE 60 AÑOS[5]				
Janaria lanegunetan/ Comida laborable	%10	€	<u>8,66</u>	<u>8,97</u>
Janaria jaiegun edo asteburuetan/ Comida festivo o fin de semana (f/s)	%10	€	<u>10,78</u>	<u>11,16</u>
Afaria lanegunetan/ Cena laborable	%10	€	<u>7,20</u>	<u>7,46</u>
Afaria jaiegun edo asteburuetan/ Cena festivo o fin de semana (f/s)	%10	€	<u>9,02</u>	<u>9,34</u>
Dieta partikularizatua / Dieta particularizada				



TOLOSAKO
UDALA

2025IPLE0003

8.- 60 URTETIK BEHERAKOENTZAKO JANTOKI SOZIALA [6]/ COMEDOR SOCIAL MENORES DE 60 AÑOS[6]				
Janaria lanegunetan/ Comida laborable	%10	€	<u>12,96</u>	13,42
Janaria jaiegun edo asteburuetan/ Comida festivo o fin de semana (f/s)	%10	€	<u>15,13</u>	15,68
Afaria lanegunetan/ Cena laborable	%10	€	<u>10,78</u>	11,16
Afaria jaiegun edo asteburuetan/ Cena festivo o fin de semana (f/s)	%10	€	<u>12,65</u>	13,11
9.- BESTE ZERBITZU BATZUK/ OTROS SERVICIOS				
A.- FISIOTERAPEUTA[7]				
Zerbitzua/ Servicio	%4	€	<u>24,44</u>	25,32
B.- PODOLOGÍA[8]				
1. kontsulta/ 1ª Consulta	%4	€	<u>13,57</u>	14,06
Kiropedia Kontsulta/ Consulta de quiropedia/consulta	%4	€	<u>13,57</u>	14,06
Sendaketa podologikoa/ Cura podológica/consulta	%4	€	<u>15,13</u>	15,68
Errehabilitazio odolgabea azazkal haragitua/kons./ Rehabilitación incruenta uña encarnada/cons.	%4	€	<u>101,49</u>	105,14
Azkazal haragitua/kontsulta/ Uña encarnada/consulta	%4	€	<u>50,77</u>	52,60
Ultzerak/kontsulta/ Ulceraciones/consulta	%4	€	<u>30,27</u>	31,36
Ultzera sendaketak/konts/ Curas ulceraciones/consulta	%4	€	<u>15,15</u>	15,69
C.- ILE- APAINKETA (BEZAREN IGOERA) / PELUQUERÍA (SUBIDA IVA)				
Gizonezkoen ilea moztea / Corte pelo varones	%21	€	<u>10,78</u>	11,16
Emakumezkoen ilea moztea/ Corte de pelo mujeres	%21	€	<u>12,71</u>	13,17
Tindua/ Tinte	%21	€	<u>29,32</u>	30,37
Iraunkorra/ Permanente	%21	€	<u>30,88</u>	32,00
10.- EGUNEKO ARRETA ZENTROA/ CENTRO DE ATENCIÓN DIURNA				
A modalitatearen “Egunero saioak” saio bakoitza/ Cada sesión de la modalidad A “Sesiones diarias”	%10	€/día	<u>135,83</u>	140,72
B modalitatearen “Astean bi saio” saio bakoitza/ Cada sesión de la modalidad B “Dos sesiones semanales”	%10	€/día	<u>141,27</u>	146,35
C modalitatearen “Astean saio bat (zerbitzu deszentralizatu)” / Cada sesión de la modalidad C “Una sesión semanal (servicio descentralizado)”	%10	€/día	<u>163,00</u>	168,87

ESK3dccc644d-1370-4782-b994-20bc44bfeaa1

Bigarrena.- Ohartaraztea eskatzaileari Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoak diren zerbitzuen prezioak eguneratzerakoan, hau da, adinekoen egoitza zerbitzuarenak, eguneko zerbitzuarenak, eta nahasmendu mentalaren unitateko zerbitzuaren prezioak eguneratzerakoan, ezinbestean errespetatu behar duten irizpidea ondokoa dela: <<plaza pribatuen prezioa izango da Aldundiak itundutako prezioari %10a erantsita>>.

Ondorioz, erabaki honekin zerbitzu horien prezioak eguneratzeko proposamena onartzen bada ere, Aldundiak zerbitzu horiek ituntzeko ezartzen duen prezioa argitaratzearekin batera, berrikusi beharko du Uzturre Asistentzia Guneak atal honetan onartutakoa, goian aipatzen den irizpidea betetzen dela bermatzeko.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du Uzturre Asistentzia Guneak eskaintzen dituen zerbitzuen prezioak eguneratzeko proposamena.

3. HASIERAKO ONARPENA EMATEA 2025EKO DIRULAGUNTZEN ERANSKINA ALDATZEKO PROPOSAMENARI.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2025eko martxoaren 19ko irizpena.

IKUSIRIK

2025eko dirulaguntzen eranskinean zenbait aldaketa egitea proposatzen da.

Proposamen txosten honen I. eranskinean ageri da indarrean dagoen Tolosako Udaleko dirulaguntzen eranskina eta II. eranskinean jasota dagoen moduan uztea proposatzen da.

Bi eranskinetan horiz koloreztatu dira aldatzea proposatzen diren eremuak.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan-esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2025eko martxoaren 19an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu du. Bozketaren emaitza honako hau izan da:

- **Aldeko bozkak:** Estitxu Kortejarena Ugarte, Garbiñe Marzol Ormazabal, Josune Sanz Vidal, Kristina Pelaez Errazkin, Biotxa Agirre Ugalde eta Ainhoa Dominguez Landa.

Beraz, aho batez, honako hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- Hasierako onarpena ematea 2025 urteko dirulaguntzen eranskinean, egitea proposatutako aldaketei eta, ondorioz, aldaketa horiek sartuta, II. eranskinean ageri den moduan uztea.

BIGARRENA.- 2025eko dirulaguntzen eranskineko aldaketak jendaurrean jartzea hamabost lanegunez, Osoko Bilkuraren hasierako onarpenaren ondoren. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da, interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartutzat joko dute.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, hasierako onarpena eman dio 2025eko dirulaguntzen eranskina aldatzeko proposamenari.

4. ONARTZEA TOLOSAKO UDALEKO 2023-2025 DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2025eko martxoaren 19ko irizpena.

IKUSIRIK

2023-2025 Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoko 2.6 dirulaguntza lerroan zenbait aldaketa egiteko proposamena jaso da Hirigintza sailetik.

Gaur egun ondorengo era honetan dago onartuta aipatutako dirulaguntza lerroa:

Dirulaguntza lerroa: 2.6.- Etxebizitzak eta bizitegi eraikinak zaharberritzeko eta irisgarritasuna eta efizientzia energetikoa hobetzeko

Eskumen arloa	Hirigintza
Sektore hartzaileak	Elementu komunetan egindako lanetan, Jabekideen Erkidegoak. Elementu pribatiboetan egindako lanetan, jabeak, gozatzaileak edo errentariak diren eskatzaileak
Helburuak	Tolosako hiri lurzoruan dauden bizitegi-erakinetako eraikinak eraberritzeko eta igogailuak ere instalatzeko obren sustapen pribatua bultzatzea. Azken batean xedea da eraikin zaharren egoera orokorra hobetzen laguntzea (estankotasuna, isolamendua, egitura sendotzea eta irisgarritasuna); hartara, udalerriko ondare eraikiaren egoera eta etxebizitzaren bizigarritasun baldintzak hobetzeko. Lehentasunez birgaitu beharreko aldetzat hartuko dira Hirigune Historikoa zein Euskal Herria plaza eta inguruko kaleak. Aipatutako helburuak betetzeko sei lerro bereizten dira: - <u>Elementu komunetan egindakoak:</u> 1. lerroa: Irisgarritasuna hobetzeko instalazioak eta obrak. 2. lerroa: Teilatua eraberritzea. 3. lerroa: Egitura sendotzea. 4. lerroa: Fatxada eraberritzea. - <u>Elementu pribatiboetan egindakoak:</u> 5. lerroa: Kanpoko arotzeria aldatzea (Eraikinen Kode Teknikoa kontuan izanda). 6. lerroa: Mugikortasun mugatua duten pertsonen eta 65 urtetik gorakoen etxebizitzak egokitzea.
Lortu nahi diren ondorioak	Etxebizitzetako eta bizitegi-erakinetako irisgarritasuna bermatzea eta efizientzia energetikoa hobetzea.
Egikaritze epea	Deialdi bakoitzean zehaztuko da
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantziaketa funts propioekin eta Eusko Jaurlaritzaren funtsekin.
Ekintza Plana	Ordenantza onartu da 2022an. Udal aurrekontua onartu ondoren, deialdi publiko bat egingo da urtero. Ebazpena jakinarazi egingo da, eta obra bukatutakoan zuriaketa ondo badago, orduan emango da dirulaguntza.
Jarraipena eta ebaluazioa	Obra kopurua eta onuradunen zenbatekoa.

PARTIDA	ONURADUNA	AZALPENA	KOPURUA	MOTA	INDARREKO PLANAN AURREIKUSIA
0600.780.01.152.20	Jabekideak edota jabeak, gozatzaileak edo errentariak	Etxebizitzak eta bizitegi-erakinetako birgaitzeko dirulaguntzak	120.000 €	Norgehiagoka	360.000 €

ESKU3dccc644d-1370-4782-b994-20bc44bfeaa1

Proposatzen dena da ondorengo hau onartzea (*horiz aldatzea proposatutako atalak*):

Dirulaguntza lerroa: 2.6.-BIZITEGI-ERAIKINAK ETA ETXEBIZITZAK BIRGAITZEKO, EFIZIENTZIA ENERGETIKOA HOBETZEKO ZEIN, OROHAR, ERAIKINEN IRISGARITASUNA HOBETZEKO DIRULAGUNTZA

Eskumen arloa	Hirigintza
Sektore hartzaileak	Bizitegi eraikinen elementu komunetan egindako lanetan, Jabekideen Erkidegoak eta pertsona fisikoak. Bizitegi eraikinen elementu pribatiboetan (hots, etxebizitzetan) egindako lanetan, jabeak, gozatzailleak edo errentariak diren eskatzaileak. Irisgarritasuna hobetzeko bestelako eraikinetan irabazi asmorik gabeko elkarteak.
Helburuak	Dirulaguntzaren helburua da diruz laguntzea Tolosan dauden bizitegi-erakundeak eraikinen eraberritzeko eta, orohar, eraikinetako irisgarritasuna hobetzeko egindako sustapen pribatuko obrak bultzatzea. Azken xedea da eraikin zaharren egoera orokorra hobetzen laguntzea (estankotasuna, isolamendua, egitura sendotzea) eta eraikinetako irisgarritasuna hobetzea; hartara, udalerriko ondare eraikiaren egoera hobetzeko eta etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak hobetzeko.
Lortu nahi diren ondorioak	Etxebizitzetako eta bizitegi-erakundeetako bizigarritasun maila hobetzea, efizientzia energetikoa hobetzea zein, orohar, eraikinen irisgarritasuna hobetzea.
Egikaritze epea	Deialdi bakoitzean zehaztuko da
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantziarioa funts propioekin eta Eusko Jaurlaritzaren funtsekin.
Ekintza Plana	Udal aurrekontua indarrean sartu ondoren, oinarriak onartu eta deialdi publikoa egingo da. Jasotako eskaerak ebaluatu eta gero dirulaguntzak onartuko dira. Zuriketa udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako moduan egingo da.
Jarraipena eta ebaluazioa	Obra kopurua eta onuradunen zenbatekoa.

PARTIDA	ONURADUNA	AZALPENA	KOPURUA	MOTA	INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA
0600.780.01.152.20	Jabekideak edota Jabeak; gozatzailleak edo errentariak; irabazi asmorik gabeko elkarteak	Etxebizitzak eta bizitegi-erakundeak birgaitzeko, efizientzia energetikoa hobetzeko zein, orohar, eraikinetako irisgarritasuna hobetzeko dirulaguntzak	300.000 €	Konkurrentzia	720.000 €

KONTUAN HARTURIK

Lehena.-Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.artikuluari adierazten den moduan, Administrazio publikoetako organoek edo dirulaguntzak ezartzea proposatzen duten edozein erakundek, aldezturik, dirulaguntzen plan estrategikoko batean zehaztu beharko dituzte horiek aplikatzearekin lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko behar den epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak, betiere aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzearen mende.

Dirulaguntza bakoitzaren oinarri arautzaileek dirulaguntzen plan estrategikoari egingo diote erreferentzia, eta adieraziko dute nola laguntzen duten helburuak lortzen; bestela, arrazoiak egin beharko da zergatik den beharrezkoa dirulaguntza berria ezartzea, Planean aurreikusi ez bada ere, eta nola eragiten dion hori betetzeari.

Bigarrena.-Indar arautzailerik ez duenez, nahikoa izango da aldaketa hau indarrean sartzeko erabakia hartzea eta aldaketaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Hirugarrena.-Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketak onartzeko eskumena duen organoa Osoko Bilkura da, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak 6. artikuluan jasotzen duenaren arabera.

Laugarrena.-Kontuan edukita jasotako proposamena 2025 urtean ematea proposatzen den dirulaguntza dela, beharrezkoa litzateke 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzea.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan-esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2025eko martxoaren 19an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu du. Bozketaren emaitza honako hau izan da:

- **Aldeko bozkak:** Estitxu Kortejarena Ugarte, Garbiñe Marzol Ormazabal, Josune Sanz Vidal, Kristina Pelaez Errazkin, Biotxa Agirre Ugalde eta Ainhoa Dominguez Landa.

Beraz, aho batez, honako hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

Lehena.-2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoko 2.6 dirulaguntza lerroa aldatzeko proposamena onartzea, aipatutako lerroa ondoren era honetan utziz:

Dirulaguntza lerroa: 2.6.-BIZITEGI-ERAIKINAK ETA ETXEBIZITZAK BIRGAITZEKO, EFIZIENTZIA ENERGETIKOA HOBETZEKO ZEIN, OROHAR, ERAIKINEN IRISGARITASUNA HOBETZEKO DIRULAGUNTZA

Eskumen arloa	Hirigintza
Sektore hartzaileak	Bizitegi eraikinen elementu komunetan egindako lanetan, Jabekideen Erkidegoak eta pertsona fisikoak. Bizitegi eraikinen elementu pribatiboetan (hots, etxebizitzetan) egindako lanetan, jabeak, gozatzailleak edo errentariak diren eskatzaileak. Irisgarritasuna hobetzeko bestelako eraikinetan irabazi asmorik gabeko elkarteak.
Helburuak	Dirulaguntzaren helburua da diruz laguntzea Tolosan dauden bizitegietarako eraikinak eraberritzeko eta, orohar, eraikinetako irisgarritasuna hobetzeko egindako sustapen pribatuko obrak bultzatzea. Azken xedea da eraikin zaharren egoera orokorra hobetzen laguntzea (estankotasuna, isolamendua, egitura sendotzea) eta eraikinetako irisgarritasuna hobetzea; hartara, udalerriko ondare eraikiaren egoera hobetzeko eta etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak hobetzeko.
Lortu nahi diren ondorioak	Etxebizitzetako eta bizitegi-eraikinetako bizigarritasun maila hobetzea, efizientzia energetikoa hobetzea zein, orohar, eraikinen irisgarritasuna hobetzea.
Egikaritze epea	Deialdi bakoitzean zehaztuko da
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantziazioa funts propioekin eta Eusko Jaurlaritzaren funtsekin.
Ekintza Plana	Udal aurrekontua indarrean sartu ondoren, oinarriak onartu eta deialdi publikoa egingo da. Jasotako eskaerak ebaluatu eta gero dirulaguntzak onartuko dira. Zuriketa udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako moduan egingo da.
Jarraipena eta ebaluazioa	Obra kopurua eta onuradunen zenbatekoa.

PARTIDA	ONURADUNA	AZALPENA	KOPURUA	MOTA	INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA
0600.780.01.152.20	Jabekideak edota Jabeak; gozatzailleak edo errentariak; irabazi asmorik gabeko elkarteak	Etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak birgaitzeko, efizientzia energetikoa hobetzeko zein, orohar, eraikinetako irisgarritasuna hobetzeko dirulaguntzak	300.000 €	Konkurrentzia	720.000 €

Bigarrena.-Osoko Bilkuraren onarpenaren ondoren, erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du Tolosako Udaleko 2023-2025 dirulaguntzen plan estrategikoaren aldaketa.

5. ONARTZEA ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEN ZERGAREN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2025eko martxoaren 19ko irizpena.

IKUSIRIK

LEHENA.- Diruzaintza azpisaileko teknikariak txosten teknikoa egin duela, eta honako hau adierazi duela:

“**LEHENA.**- 2023ko urriaren 26an, Ohiko Osoko Bilkurak Tolosako udaleko Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren ordenantzaren aldaketak onartu zituela.

BIGARRENA.- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko Zergaren karga tasa bakarra izateko eta hobari berriak ezartzeko proposamena jaso da.

HIRUGARRENA.- Uztailaren 5eko Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren 15/1989 Foru Arauak, dio (3.3 art.):

“Zergaren karga tasa Udalak finkatuko du eta ezingo da 100eko 5etik gorakoa izan.”

Tolosako udalak, gaur egun, karga tasa desberdinak ditu:

1	Eraikuntza, instalazio eta obrak.	Construcciones, instalaciones y obras en general	5, %
2	Araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak egiteko eraikuntza berriko obrak. Alde Zaharreko eremuen esparru geografikoan egindako obrak, hau da, eremu hauetakoak: 7.1."Ezkerraldea", 7.2. "Elosegi Txapelak", 7.3. "Alde Zaharra", 9.1. "Plaza Euskal Herria eta ingurua" y 6.3 "Santa Klarako Errebala". Bizigune Programan sartzeko etxebizitzetan egiten diren obrak, baldin eta VISESAren instantziaz egin badira.	Obras de nueva planta destinadas a viviendas de protección oficial de régimen general. Obras efectuadas en el ámbito geográfico de las áreas de Casco Antiguo, esto es, en los subámbitos 7.1."Margen Izquierda", 7.2. "Boinas Elosegui", 7.3. "Casco Viejo", 9.1. "Plaza Euskal Herria y entorno" y 6.3 "Arrabal de Santa Clara". Obras que se realicen en viviendas que se incorporen al Programa Bizigune, cuando dichas obras se hayan efectuado a instancia de VISESA	2 %
3.	3. Nekazaritzako eta abelazkuntzako ustiapenerako baino ez diren obrak eta horrekin lotuta dauden ondasun higiezinak obrak. Etxebizitza erabilerarekin lotura duten obrei tasa orokorra aplikatuko zaie.	3. Obras destinadas exclusivamente a la explotación agrícola y ganadera y las obras sobre bienes inmuebles conexos. A las obras relacionadas con el uso de vivienda se les aplicará el tipo general.	1 %
4.	Jarduera ekonomikoaren lotutako lokaletan egindako obren kasuetan, 50.000 eurotik beherako aurrekontu materiala duten obretan	En caso de obras en locales con actividad económica, obras con coste inferior a 50.000 euros	0%

LAUGARRENA.- Bestalde, hobariei dagokienez, Uztailaren 5eko Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren 15/1989 Foru Arauak, dio (5 art.):

"Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriek honako hobariak arautu ahal izango dituzte beren ordenantza fiskaletan zerga kuotaren gainean:

a) 100eko 95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

b)100eko 95era bitarteko hobari bat, eraikuntza, instalazio edo obretan, baldin eta:

— Eguzki energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzen badira. Hobari hori aplikatzekotan, beroa sortzeko instalazioek administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak edo berokuntzako eta ur beroko sanitarioko sistemak (UBS) eduki behar dituzte.

— Haien xedea bada A edo B motako energia etiketa bat lortzeko energia birgaikuntza. Horretako, hobari portzentajea aldakorra izan daiteke, energia etiketaren motaren arabera.

— Haien xedea bada energia birgaikuntza eta irisgarritasuna barne hartzen dituen higiezin birgaikuntza integrala. Horretarako, energia birgaikuntzaren xedea izan behar da A edo B motako energia eraginkortasuneko etiketa bat lortzea.

— Udalerriko auzo edo eremuetan energia berriztagarriak sartzeko birgaikuntza integraleko proiektuen testuinguruan egiten badira.

Letra honetan aipatutako hobaria aplikatuko da, bakar bakarrik, indarrean dagoen legeriaren arabera derrigorrez inbertitu behar ez diren kopuruen gainean.

c) 100eko 50era bitarteko hobaria, eraikuntza, instalazio edo obrak azpiegiturretan inbertsio pribatuak sustatzeko planekin lotuta daudenean.

d) 100eko 50era bitarteko hobaria, babes publikoko etxebizitzekin zer ikusia duten eraikuntza, instalazio edo obrak direnean.

e) 100eko 90era bitarteko hobaria, eraikuntza, instalazio edo obrek pertsona ezinduen irisgarritasun eta habitagarritasun baldintzak errazten dituztenean.

f) 100eko 90erainoko hobari bat ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzeko beharrezkoak diren eraikuntza, instalazio edo obren alde. Hobari hori aplikatuko bada, instalazioek administrazio eskudunaren homologazioa izan behar dute.

Tolosako udalak, gaur egun, ondorengo hobariak ditu:

1.-Udalak onartua duen Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Ondare Katalogatuaren barnean, udalerriko hirigintza ondarean barne hartzen diren ondasun eta elementuen zerrendan egindako eraikuntza instalazio edo obrak, edota Udalaz gaindiko administrazio eskudunek Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legearen arabera babestutako ondasun eta elementuen zerrendan agertzen diren eraikinetan egindako obrak, %60ko hobaria. Hobari hau, %5eko karga-tasa aplikatuta ateratzen den kuotari aplikatuko zaio. Edozein kasutan, obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta egon beharko

dute, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

2. Zerga-kuotaren %95eko hobaria jasoko dute autokontsumorako eguzki energia aprobetxatzeko sistemak erabiltzen dituztenek. Dena den, hobari hau aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da beroa sortzeko instalazioak Administrazio eskudunak homologatutako kolektoreekin hornituta egotea. Hobari hau ondorengo balizko egoeran baino ez da aplikatuko: dagokion araudiak aipatutako sistemak instalatzea eskatzen ez duenean edota araudiak eskatutakoa gainditzen duen zatian. Era berean, hobaria ondorengoetan baino ez da aplikatuko: eguzki energia aprobetxatzeko sistemak gehitzen dituzten eraikuntza, instalazio eta obrarako diru-partidari dagokion kuota zatiaren gainean. Edonola ere, hobari honen ezarpena, instalazioaren mantenu kontratuaren edota instalazioak funtzionatzen hasteko administrazioaren baimena aurkeztearen menpe egongo da.

3. % 95eko hobaria izango dute babes ofizialeko etxebizitzetarako diren oin berriko obrek, bai araubide orokorreko etxebizitzetarako direnek, bai araubide bereziko edo etxebizitza sozialetarako direnek, beti ere zuzeneko sustapen publikokoak badira edo edozein administrazio publikoren mendeko sozietateek sustatutakoak badira. Hobari hau, %5eko karga-tasa aplikatuta ateratzen den kuotari aplikatuko zaio. Edozein kasutan, obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta egon beharko dute, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

4. Pertsona ezinduen irigarritasun eta habitagarritasun baldintzak errazten dituzten eraikuntza, instalazio eta obrek % 60ko hobaria izango dute. Hobari hau etxebizitza eraikinetako zona komunetako sarrera-irteeren edota etxebizitza partikularren barruko irigarritasuna hobetzeko egiten diren obrei aplikatuko zaie, beharrezkoak direla frogatzen diren heinean. Hau ez da aplikatuko etxebizitza eraiki berrietan. Irigarritasuna hobetzeko obrei dagokien zenbatekoaren gainean besterik ez da aplikatuko hobari hau. Udal teknikariek beharrezkotzat jotzen duten informazioa eskatuko dute, zehazteko irigarritasun elementuak eta horrek eskatzen dituen obra minimo eta ezinbestekoak.

BOSGARRENA.- Uztailaren 5eko Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren 15/1989 Foru Arauean oinarrituz, karga tasa bakarra izatea proposatzen da: **%5.**

Hori horrela izanik, hainbat hobari onartzea proposatzen da:

1.- Eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatzen badira, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak izateagatik ondorengo hobariak aplikatuko dira:

a) Alde Zaharra, EH Plaza eta honen ingurunea eta Santa Klarako eremuen esparru geografikoan egindako zaharberritze obrak, zerga-kuotaren %95eko hobaria jasoko dute.

b) Alde Zaharra, EH Plaza eta honen ingurunea eta Santa Klarako eremuen esparru geografikoan egindako oin berriko eraikinen obrak, zerga-kuotaren %60eko hobaria jasoko dute.

c) Zuzeneko sustapen publikoko edo edozein administrazio publikoren mendeko sozietateek sustatutako Babes ofizialeko etxebizitzetarako diren oin berriko obrek, bai araubide orokorreko etxebizitzetarako direnek, bai araubide bereziko edo etxebizitza sozialetarako direnek, % 95eko hobaria izango dute.

d) Alokabideren babesean Bizigune Programan sartzeko etxebizitzetan egiten diren zaharberritze obrek, % 95eko hobaria izango dute.

e) Nekazaritzako eta abelazkuntzako ustiapenerako baino ez diren obrak eta horrekin lotuta dauden ondasun higiezinetakako obrak % 80eko hobaria izango dute.

f) Jarduera ekonomikoaren lotutako 200 metro karratu baina gutxiagoko lokaletan egindako obren kasuetan, 50.000 eurotik beherako aurrekontu materiala duten obretan % 95eko hobaria izango dute.

g) Udalak onartua duen Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Ondare Katalogatuaren barnean, udalerriko hirigintza ondarean barne hartzen diren ondasun eta elementuen zerrendan egindako eraikuntza instalazio edo obrak, edota Udalaz gaindiko administrazio eskudunek Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legearen arabera babestutako ondasun eta elementuen zerrendan agertzen diren eraikinetan egindako obrak, %95ko hobaria izango dute.

Apartatu honetako bi hobari-kasu edo gehiago gertatzen badira, ehuneko handiena duen kontzeptuagatik soilik aplikatuko da hobaria.

2.- Zerga-kuotaren %95eko hobaria jasoko dute autokontsumorako eguzki energia aprobetxatzeko sistemak erabiltzen dituztenek. Dena den, hobari hau aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da beroa sortzeko instalazioak Administrazio eskudunak homologatutako kolektoreekin hornituta egotea. Hobari hau ondorengo balizko egoeran baino ez da aplikatuko: dagokion araudiak aipatutako sistemak instalatzea eskatzen ez duenean edota araudiak eskatutakoa gainditzen duen zatian. Era berean, hobaria ondorengoetan baino ez da aplikatuko: eguzki energia aprobetxatzeko sistemak gehitzen dituzten eraikuntza, instalazio eta obrarako diru-partidari dagokion kuota zatiaren gainean. Edonola ere, hobari honen ezarpena, instalazioaren mantenu kontratuaren edota instalazioak funtzionatzen hasteko administrazioaren baimena aurkeztearen menpe egongo da.

3.- Sustatzaile pribatuek sustatutako Babes ofizialeko etxebizitzetarako diren oin berriko obrek, bai araubide orokorreko etxebizitzetarako direnek, bai araubide bereziko edo etxebizitza sozialetarako direnek, % 50eko hobaria izango dute.

4.- Pertsona ezinduen irisgarritasun eta habitagarritasun baldintzak errazten dituzten eraikuntza, instalazio eta obrek % 90ko hobaria izango dute. Hobari hau etxebizitza eraikinetako zona komunetako sarrera-irteeren edota etxebizitza partikularren barruko irisgarritasuna hobetzeko egiten diren obrei aplikatuko zaie, beharrezkoak direla frogatzen diren heinean. Hau ez da aplikatuko etxebizitza eraiki berrietan. Irisgarritasuna hobetzeko obrei dagokien zenbatekoaren gainean besterik ez da aplikatuko hobari hau. Udal teknikariek beharrezkotzat jotzen duten informazioa eskatuko dute, zehazteko irisgarritasun elementuak eta horrek eskatzen dituen obra minimo eta ezinbestekoak.

KONTUAN HARTURIK

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2. d) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako onespena ematea: Udalbatza.

Beraz, udal-teknikari honek honako hau **PROPOSATZEN DU:**

LEHENA.- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko Zergan karga tasa bakarra onartzea: %5.

BIGARRENA.- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko Zergan ondorengo hobariak onartzea:

1.- Eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatzen badira, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak izateagatik ondorengo hobariak aplikatuko dira:

a) Alde Zaharra, EH Plaza eta honen ingurunea eta Santa Klarako eremuen esparru geografikoan egindako zaharberritze obrak, zerga-kuotaren %95eko hobaria jasoko dute.

b) Alde Zaharra, EH Plaza eta honen ingurunea eta Santa Klarako eremuen esparru geografikoan egindako oin berriko eraikinen obrak, zerga-kuotaren %60eko hobaria jasoko dute.

c) Zuzeneko sustapen publikoko edo edozein administrazio publikoren mendeko sozietateek sustatutako Babes ofizialeko etxebizitzetarako diren oin berriko obrek, bai araubide orokorreko etxebizitzetarako direnek, bai araubide bereziko edo etxebizitza sozialetarako direnek, % 95eko hobaria izango dute.

d) Alokabideren babesean Bizigune Programan sartzeko etxebizitzetan egiten diren zaharberritze obrek, % 95eko hobaria izango dute.

e) Nekazaritzako eta abelazkuntzako ustiapenerako baino ez diren obrak eta horrekin lotuta dauden ondasun higiezinetakoa obrak % 80eko hobaria izango dute.

f) Jarduera ekonomikoaren lotutako 200 metro karratu baina gutxiagoko lokaletan egindako obren kasuetan, 50.000 eurotik beherako aurrekontu materiala duten obretan % 95eko hobaria izango dute.

g) Udalak onartua duen Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Ondare Katalogatuaren barnean, udalerriko hirigintza ondarean barne hartzen diren ondasun eta elementuen zerrendan egindako eraikuntza instalazio edo obrak, edota Udalaz gaindiko administrazio eskudunek Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legearen arabera babestutako ondasun eta elementuen zerrendan agertzen diren eraikinetan egindako obrak, %95eko hobaria izango dute.

Apartatu honetako bi hobari-kasu edo gehiago gertatzen badira, ehuneko handiena duen kontzeptuagatik soilik aplikatuko da hobaria.

2.- Zerga-kuotaren %95eko hobaria jasoko dute autokontsumorako eguzki energia aprobetxatzeko sistemak erabiltzen dituztenek. Dena den, hobari hau aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da beroa sortzeko instalazioak Administrazio eskudunak homologatutako kolektoreekin hornituta egotea. Hobari hau ondorengo balizko egoeran baino ez da aplikatuko: dagokion araudiak aipatutako sistemak instalatzea eskatzen ez duenean edota araudiak eskatutakoa gainditzen duen zatian. Era berean, hobaria ondorengoetan baino ez da aplikatuko: eguzki energia aprobetxatzeko sistemak gehitzen dituzten eraikuntza, instalazio eta obrarako diru-partidari dagokion kuota zatiaren gainean. Edonola ere, hobari honen ezarpena, instalazioaren mantenu kontratuaren edota instalazioak funtzionatzen hasteko administrazioaren baimena aurkeztearen menpe egongo da.

3.- Sustatzaile pribatuek sustatutako Babes ofizialeko etxebizitzetarako diren oin berriko obrek, bai araubide orokorreko etxebizitzetarako direnek, bai araubide bereziko edo etxebizitza sozialetarako direnek, % 50eko hobaria izango dute.

4.- Pertsona ezinduen irisgarritasun eta habitagarritasun baldintzak errazten dituzten eraikuntza, instalazio eta obrek % 90ko hobaria izango dute. Hobari hau etxebizitza eraikinetako zona komunetako sarrera-irteeren edota etxebizitza partikularren barruko irisgarritasuna hobetzeko egiten diren obrei aplikatuko zaie, beharrezkoak direla frogatzen diren heinean. Hau ez da aplikatuko etxebizitza eraiki berrietan. Irisgarritasuna hobetzeko obrei dagokien zenbatekoaren gainean besterik ez da aplikatuko hobari hau. Udal teknikariek beharrezkotzat jotzen duten informazioa eskatuko dute, zehazteko irisgarritasun elementuak eta horrek eskatzen dituen obra minimo eta ezinbestekoak.

HIRUGARRENA.- Aldaketa hauek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko da.”

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2025eko martxoaren 19an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko bozkak: Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Josune Sanz Vidal, Kristina Pelaez Errazkin, Biotxa Agirre Ugalde eta Ainhoa Dominguez Landa.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko Zergan karga tasa bakarra onartzea: %5.

BIGARRENA.- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko Zergan ondorengo hobariak onartzea:

1.- Eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatzen badira, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak izateagatik ondorengo hobariak aplikatuko dira:

